



Banku Publikoan EAJk egin duela atzera uste du Garaikoetxeak. GILLENIA

EAJk gobernatu eta oposizioarekin jardun nahi duela dio Garaikoetxeak

INAKI URIARTE / MUNGIA

Euzko Alderdi Jeltzaleak gobernuan egon eta aldi berean oposizioarekin jardun nahi duela esan zuen Carlos Garaikoetxeak atzo. «Eusko Jaurlaritzak egoera paradogikoa edo kafarra du: EAJk Euskal Banku Publikoa na-

hi du, baina PSOEek ezetza ematen dio; orduan EAJk, nahiz eta oposizioan egon, Eusko Alkartasunari laguntza eskatzen dio. Baina Eusko Alkartasunak gauzak ondo egiteko proposatzen badu, orduan EAJk ez du onartzen eta erantzukizuna Eusko Alkartasunari leporatzen dio», azaldu zuen.

Uribe Butroeko EAko arduradun eta hautetsiekin eginiko bilera profitatu zuen Carlos Garaikoetxeak hitz gogorrez erantzuteko Jose Luis Larrea ekonomia sailburuari. Euskal Banku Publikoaren gaian Eusko Alkartasunaren planteamendua EAJrena baino urrunago doala berretsi zuen Garaikoetxeak.

EAKo lehendakariaren ustez, «ironia itzela da, PSOE baita esaten duena bide guztiak erabiliz aurka egingo diola Euskal Banku Publikoari».

Garaikoetxeak adierazi zuenez, Euskal Banku Publikoak «edukirik gabeko txiringittoa izan ez dadin» kutxa koefizienteak behar ditu.

PSE-EE izanik ezezko biribila iragatzen duena, dio Garaikoetxeak, «EAJk, bere bazkidea Eusko Jaurlaritzan, jakinda PSOERI aurre egin behar diola aitzakia lortu behar du enfrontamenduari ihes egiteko, atzera egiteko. Horretarako Eusko Alkartasunaren jarrera tinkoari eutsi dio atzera egin, Eusko Alkartasunari errua bota eta hurrengo egunean PSOEekin gobernatzen segitzeko», salatu zuen Euskal Autonomi Elkartearen lehen-

dakari ohiak. Garaikoetxeak gogorazi zuen koefizienteen gaia azken hauteskundeetarako EA-EUEk aurkeztu zuen egitarauan zegoela.

ALBISTUR TRAIIDOREA ALDERDIARI Xabier Albisturrek eginiko kritikak (Banku Pu-

blikoaren proiektuak atzera egi-tearen errua EAri egotzi zion diputatuak) gaitzetsi egin zituen esanez diputatuak «bere alderdia traizionatu ezezik EA-EUEren egitaraua ere» traizionatu duela. Deskalkifikazio horien ildotik, «Erromak traidoreei ordaintzen ez badie ere, herri honetan alderdiren batek jarrera gomendagarri hori» hautsi duela gaineratu zuen.

Bestalde, Estatuaren diru bereizien erabilera gaitzetsi zuen Carlos Garaikoetxeak. «Eskandalua horren handia da ezen gutxienezko heldutasun demokratikoa daukan inongo herrik ez lukeela onartuko horren erantzukizuna daukan ezein gobernu bere horretan irautea», adierazi zuen atzoko prentsurrekoan.

Garaikoetxeak adierazi zuenez, GALen finantzaketa ezkutatuaren gaia «eskandalu are handiagoa» izan zitekeen epaileen eskuetara heldu izan balitz. Ezkutuko diru horien gainean kontrol handiagoa izatearen aldeko agertu zen Carlos Garaikoetxea. Era berean, diru ahalik eta gutxienez zuzendu beharko litzatekeela atal horretara uste du gainera.

Historia...

✧ Sendoa eta herriaren sustraletan oinarritua.

✧ Izakeraz, bakarra.

...eta Etorkizuna.

✧ 24 orduak Euskal Herriaren serbitzura.

✧ Programazioa guztiz berea.

✧ Gipuzkoa osora hedatua.

Historiaz beteriko etorkizuna



RADIO POPULAR
— HERRI IRRATIA —

DONOSTIA O.M. 1.224

LOIOLA F.M. 99.8

HUR GOROSTIAGA



Gazteentzako egoitzen eske

'Landagoien CRSrentzat ez, gazteentzako egoitzak' idatzirik agertzen zuen pankarta erraldoia zabaldu zuten atzo Uztaritzeko kantonamenduko gazteek, Josianne Mersch hautagai abertzalearekin batera. Landagoien izeneko egoitza Uztaritzeko herrian dago eta kasik urte osoan zehar hutsik egon ohi da, udan CRSk erabiltzen dutenean salbu. Merschek gazteek gaur egun egoitzak izateko dituzten arazoak aipatu zituen bertan, Landagoien egoitza sozialak izan daitezen galdegiteko. Kantonamenduko gazteek, berriz, Abertzaleen Batasunaren alde bozkatzeko deia zabaldu zuten.